URTETA ZABORTEGIKO III FASEARI DAGOKION PROIEKTUAREN EXEKUZIOAN SEGURTASUN ETA OSASUNAREN KOORDINAZIO-ZERBITZUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

LEHEN KAPITULUA – KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA ETA IZAERA

Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatzen duen Urteta Zabortegiko III faseari dagokion proiektuaren exekuzioan segurtasun eta osasunaren koordinazio-zerbitzua ematea da baldintza-agiri honekin egingo den kontratuaren xedea, beti ere, administrazioko baldintza teknikoen agiri honekin eta preskripzio teknikoen agiriarekin adostasunean, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoak emandako jarraibideak betez, eta, halaber, kontratuaren adjudikaziodunak bere eskaintzan adierazitakoarekin bat.

Kontratuaren xedeari dagokion nomenklaturaren kodifikazioa CPV- 71317200-5 da.

Administrazioko baldintza teknikoen agiriak eta preskripzio teknikoen agiriak kontratu-izaera izango dute, eta adjudikaziodunak sinatu beharko ditu, ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Kontratazio honek zerbitzu-kontratu izaera izango du, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak lekualdatzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko (aurrerantzean, 9/2017 Legea) 16. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, aipatutako arauko 308. artikuluan eta hurrengoetan arautua.

2. KONTRATUAREN EGIKARITZE-EPEA

Egikaritze-epea hasiko da kontratua formalizatu eta hurrengo egunean, eta bukatuko da gastuen azken ziurtagiria aurkeztu eta ondoren.

Obren exekuzio epea BERROGEITA HAMABOST (55) ASTEETAN dago ezarrita.

3. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Urtetako III fasea (II eta III zeldak behin betiko izaerarekin zigilatzea) izeneko obraren aurrekontua 3.490.683,93 eurokoa da, BEZ sartu gabe, 4.223.727,56 euro (%21eko BEZ barne).

Bisita bakoitzeko gehieneko prezioa 120 eurokoa da, BEZik gabe. Prezioan sartuko dira bisitak, aktak/txostenak idaztea, komunikazioak, bilerak, enpresa-jarduerak koordinatzeko plataformaren kudeaketa, bisatuak, e.a. Prezio unitarioa ez da aldatuko bisita motaren arabera (planifikatua, apartekoa...), prezio bakarra izango da.

Kontratua esleitzeko prozedura zehazteko, kontratuaren balio zenbatetsia (BEZik gabe) 12.480 eurokoa da, 9/2017 Legearen 101. artikuluan zehaztutako moduan kalkulatuta eta 13 hilabetez astean 2 bisita egitea kontuan hartuta.

Ondorio guztietarako, ulertuko da eskaintzetan eta lizitazioa esleitzen den kopuruan sartzen direla adjudikaziodunak kontratua betetzeko egin behar dituen zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak.

Lizitatzaileek prezio horiek hobetu ahal izango dituzte beren eskaintzetan.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, Udal Elkarteak kreditu nahikoa izango du aurrekontuetan.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Adjudikaziodunak eskubidea izango du berak emandako eta Administrazioak formalki jasotako zerbitzuen prezioa berari abonatzeko, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

Hilean behin ordainduko da prezioa, egindako bisiten arabera, behin maiztasun horrekin egiten den obra-ziurtagiria egiten denean.

Obra, behin betiko edo behin-behineko izaerarekin geratuko balitz, Udal Elkarteak zerbitzua eta honen ordainketa eten ahalko ditu.

Kontratuaren likidazioari buruz 210. artikuluaren 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, emandako zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onetsi beharko ditu Udal Elkarteak, kontratua egin eta hogeita hamar eguneko epean.

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du Urola Kostako Udal Elkarteari fakturak egiteko eta bidaltzeko.

Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren (FeSPO) bidez jasoko dira faktura elektronikoak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan topa daiteke FeSPO. Bertan, FeSPOri buruzko informazio zabalagoa dago eskuragarri, bai eta faktura elektronikoak egiteko programaren doako deskargarako sarbidea ere (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua)

Faktura onartu ondoren, kontratistak adierazitako finantza-erakundeari banku-transferentzia eginez burutuko dira ordainketak, 9/2017 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeen barruan.

Fakturaren zenbatekoaren gainean, Udal Elkarteak kenkariak aplikatu ahal izango ditu esleitutako zerbitzuak ez emateagatik edo osorik ez egiteagatik, bai eta izan litezkeen zigorrengatik ere.

6. PREZIOEN BERRIKUSKETA

Ez dagokio.

7. BERMEAK

Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzailea behartuta dago behin betiko berme bat jartzera, 9/2017 Legearen 107 eta ondoren artikuluetan araututako moduan; berme hori, zehazki, lizitatzaileak berak eskainitako amaierako prezioaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta

8. KAUDIMEN EKONOMIKO, FINANTZARIO ETA TEKNIKOA

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzeko agiriak.

Lizitatzaileek, bertakoek zein atzerritarrek, egiaztatu behar dute kaudimen ekonomiko eta finantzario egokia dutela kontratu adostua egikaritzeko, eta bitarteko eta irizpide hauek beteta egiaztatu behar dute:

- Eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte indarrean dagoen arrisku profesionalengatik kalte-ordainen asegurua badela frogatzen duen agiria aurkeztu behar dute; aseguruaren zenbatekoa ez da kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa izango.

  Lizitatzaileak edo hautagaiak asegurua egiteko konpromiso lotesle bat jasotzen badu bere eskaintzan, esleipendun suertatuz gero, ulertuko da eskatutako asegurua edukitzeko baldintza hori bete dela;

9/2017 Legearen 150. artikuluaren 2. paragrafoak aipatzen duen hamar egun balioduneko epearen barruan bete beharko du konpromiso hori.

Baldintza hori aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren muga-eguna jaso behar dira.

Kaudimen tekniko edo profesionala.

- Azken 3 urteetan esperientzia egiaztatzen duten kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriak dituzten burututako zerbitzuen zerrenda, zenbatekoak, datak eta hartzaileak, publikoak nahiz pribatuak. Egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada. Hartzailea subjektu pribatua bada, subjektu pribatuak emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori ezean, enpresaburuak egindako aitorpen baten bidez; eta, horrekin batera, ziurtagiri hori egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.

  Enpresa lizitatzaileen proposamenak baino ez dira onartuko, baldin eta gutxienez kontratu honen helburuaren antzeko zerbitzu-kontratu bat egin dela egiaztatzen badute. Halakotzat hartuko da obren segurtasuna eta osasuna koordinatzea, koordinatu beharreko obraren aurrekontuaren gutxienez % 75 BEZik gabe.

9. KAUDIMENEKO BALDINTZEN ZEHAZTAPENA

A. Azken hiru urteetan emandako zerbitzuen zerrenda, adierazita aurrekontua, zerbitzuak zer urtetan eman ziren eta hartzaileak zein izan ziren, publikoak zein pribatuak.

B. Eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte indarrean dagoen arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen asegurua badela frogatzen duen agiria; kontuan hartuta aseguruaren zenbatekoa ez dela kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa izango.

Agiri hauek egiaztatu beharko ditu esleipendun izateko proposatzen den lizitatzaileak, horretarako errekeritua den unean eta epean, 26. Klasuluan jasotzen denari jarraiki.

10. KONTRATUAREN EGIKARITZEA

Kontratistak bere gain hartuko du kontratua egikaritzeak dakarren arriskua.

Kontratua egikaritzeko, agiri honetan jasotako klausulak, baldintza teknikoen agiriko zehaztapenak, aplikatu beharreko araudi orokorra eta, nolanahi ere, kontratatutako lanen izaerari dagozkion arau teknikoak bete beharko dira. Hori guztia Udal Elkartearen zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean egingo da, eta idatziz zein ahoz gauzatuko dira ahalmen horiek.

Kontratista izango da egindako lanen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua egikaritzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei dakarzkien ondorioen erantzule ere. Antzemandako akatsak Administrazioaren agindu baten edo Administrazioak ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean bakarrik geratuko da erantzukizunetik salbuetsita. Zerbitzuaren ordena egokia zainduko du, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu.

Adjudikaziodunak, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola lan- edo informazio-bileretara joatea.

Kontratistaren ardura izango da lanak behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentziak eskuratzea, eta bere kontua izango da erakunde eskudunen baldintzak eta aginduak betetzea.

11. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez eta preskripzio teknikoen pleguan ezarritakoez gain, honako betebehar hauek egongo dira berariaz:

Kontratistak, kontratuan diharduten langileei dagokienez, nahitaez bete behar ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzari, desgaitasuna dutenak gizarteratzeari, laneko segurtasun eta higieneari eta laneko arriskuen prebentzioari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenak; hartara, Urola Kosta Udal Elkarteak ez du erantzukizunik izango urraketa horrengatik.

Administrazio-kontratua indarrean dagoen bitartean, eta Udal Elkarteak hala eskatzen duenean, adjudikaziodunak egiaztatu beharko du egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga-betebeharrak. Gizarte Segurantzari egindako ordainketei dagokienez, adjudikaziodunak egunean dagoela egiaztatzeaz gain, egiaztatu beharko du bere langileek legez eska daitekeen kotizazio-oinarriaren arabera kotizatzen dutela, eta ez kuota minimoaren arabera soilik. Udal Elkarteari akreditazioa aurkezteko, lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren bitartez edo auditoretza baten bidez egin ahal izango da. Zerga-egoerari dagokionez, administrazio eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak behar bezala egiteko eta bertan gertatzen diren absentzia guztiak (bajak eta oporrak barne) betetzeko, beharrezko langile guztiak izan beharko ditu uneoro kontratuaren xede diren lanen eskura.

Langileek ez dute inolako lan-loturarik izango Urola Kosta Udal Elkartearekin.

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan aipatutako Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betetzeko, baldintza-agiri honen III. ERANSKINaren arabera.

12. KONTRATISTAK DATUEN BABESAREN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK

Kontratatutako zerbitzuei buruz enpresa adjudikaziodunak ezagutu ditzakeen datu guztien nortasuna eta sekretua gorde beharko ditu kontratistak, zerbitzu horiek konfidentzialtzat jotzen baitira. Kontratistak kalte-ordaina emango die lanbide-isiltasunaren betebeharra urratzeak eragindako kalte-galeren ondorioz kaltetutako Administrazioari eta pertsonei. Era berean, kontratua betetzeko beharrezkoa izan daitezkeen datu pertsonalak erabiltzeko, enpresa adjudikaziodunak datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko du.

Adjudikaziodunak, kontratua betetzeko beharrezkoa izan daitezkeen tratamendu automatizatuaren xede diren datu pertsonalak erabiltzeko, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko du. Enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili edo aplikatu kontratuaren ondorioz lortutako datu pertsonal automatizatuak, kontratuan agertzen denaz bestelako xedeetarako, ezta beste pertsona batzuei laga ere, gordetzeko izanda ere.

Kontratu-prestazioa bete ondoren, tratatutako datu pertsonalak Udal Elkarteari eman beharko zaizkio. Enpresa adjudikaziodunak bere datuak suntsitu beharko ditu, salbu eta Udal Elkartearen idatzizko baimena badu, geroko zerbitzuak egon daitezkeelako; kasu horretan, bost urterako biltegiratu ahal izango ditu, segurtasun-baldintza egokietan.

13. KONTRATISTAK HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEARI DAGOKIONEZ DITUEN BETEBEHARRAK

Kontratua Euskadiko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarritako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidearen baitan dago eta Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak arautzen du.

Oro har, kontratuaren xedearen osagai diren ikerketa, txosten, proiektu edo bestelako lanak bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) egingo dira.

14. AZPIKONTRATAZIOA

Azpikontratuak egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- **a)** Lizitatzaileek kontratuaren zer zati azpikontratatuko duten adierazi beharko dute eskaintzan, bai eta zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila ere.
- **b)** Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenik ere, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta adierazi beharko dizkio azpikontratatuko den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkariak, behar bezala justifikatu beharko du azpikontratista gai dela lan horretarako, eta egiaztatu beharko du ez dagoela kontratatzeko debekurik.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia egikaritzean informazioak izandako edozein aldaketa, bai eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aginduen menpe egongo dira soilik, eta hark bere gain hartuko du, beraz, Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-klausula zehatzen pleguen eta kontratuaren baldintzen arabera, ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Kontratistak azpikontratazioko langileen berri eman beharko die ordezkariei, lan-legeriaren arabera.

15. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Haren araubideari dagokionez, 9/2017 Legearen 190., 191., 203. artikulutik 207. artikulura bitartean eta lege horren 3. xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko da.

16. URRAKETAK ETA URRAKETENGATIK KONTRATISTARI EZARTZEKO ZIGORRAK

Kontratistak nahitaez bete behar du kontratua, hura egiteko ezarritako epe osoaren barruan. Kontratistari berandutze-egoera esleitzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioaren aldez aurreko agindurik.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa betetzeko berandutze-egoeran jarri bada, toki-erakundeak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua etetea edo eguneko zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango du, kontratuaren prezioko 1.000 euroko 0,60 euro proportzioan, BEZ gabe.

Berandutzeagatiko zigorrak, BEZ gabe, kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua eteteko edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Egikaritzean berandutzen bada eta, baldin eta, zigorra aurreikusita egonik, toki-erakundeari eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kontratistak kalte-galeren ordaina eskatuko dio.

Zigorrak kontratazio-organoaren erabakiz ezarriko dira, eta erabakia kontratuaren arduradunak proposatuta hartuko da,hura izendatu bada, eta berehala betearaziko da. Zigorrak kontratistari osorik edo zati batean ordaindu beharreko zenbatekoak kenduta ordainduko dira.

17. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazio osoa egindakoan, kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta Udal Elkartea gogobeteta dagoenean.

Zerbitzu-kontratua eteteko arrazoiak dira, Legearen arrazoi orokorrez gain, 9/2017 Legearen 313. artikuluan ezarritakoak, bai eta baldintza-agirietan halakotzat kalifikatutako gainerako funtsezko betebeharrak urratzea ere.

Kontratua eteteak ondasunak eta egindako ordainketen zenbatekoa elkarri itzultzea ekarriko du, eta, toki-erakundearentzat posible edo komenigarria ez denean, benetan entregatutakoen eta adostasunez jasotakoen prezioa ordaindu beharko du.

Kontratua eteteko arrazoiak eta ondorioak aplikatzeko, aurretik adierazitakorik ezean, 9/2017 Legearen 212., 213. eta 313. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

18. ZERBITZUEN HARRERA

9/2017 Legearen 312. artikuluan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.

19. ADMINISTRAZIOAREN PRIBILEGIOAK

Udal Elkarteak, administrazio kontratatzailea baita, zerbitzua behar bezala emateko egokitzat jotzen dituen jarraibide eta aginduak eman ahal izango ditu, betiere kontratatutako prestazioak aldatzen ez badira.

Eta, oro har, honako pribilegio hauek izango ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren betearazpena etetea, kontratua etetea erabakitzea eta kontratuaren ondorioak zehaztea, 9/2017 Legean ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako betekizun eta ondorioei lotuta.

Nolanahi ere, audientzia emango zaio kontratistari, eta SPKLTBren 211. artikuluan aurreikusitako izapideei jarraitu beharko zaie.

Kontratazio-organoek beren pribilegioak baliatzean hartzen dituzten erabakiak berehala betearaztekoak izango dira.

Erabaki horien aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan aipatzen diren errekurtsoak jarri ahal izango dira, bidezkoa den kasuetan.

BIGARREN KAPITULUA – KONTRATATZEKO PROZEDURA

20. ADJUDIKAZIORAKO PROZEDURA ETA MODUA

9/2017 Legearen 159 artikuluaren arabera, prozedura ireki sinplifikatua aplika daiteke.

Ondorioz, interesa duen enpresari orok proposamena aurkeztu ahal izango du, kontratuaren baldintzen negoziazio oro baztertuta dagoelarik.

Adjudikazio-irizpideak aplikatu ostean, bi eskaintza edo gehiagoren arteko berdinketa badago, 9/2017 Legearen 147.2 artikuluan jasotako irizpide sozialak, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeari buruzkoak, aginduz aplikatu eta berdinketa ebatziko da.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko, dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzaileek, eta ez aldez aurretik.

21. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

21.1.- Automatikoki kalkulatu daitezkeen irizpideak (2 fitxategia): 55 puntu

A) Eskaintza ekonomikoa: 45,00 puntu

Eskaintzarik onenari gehieneko puntuazioa, hau da, 45 puntu, emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei, berriz, puntuazio onenari baja-ehunekoaren eta eskaintzarik merkeenaren arteko aldearen ondoriozko puntuak kentzearen emaitza emango zaie.

- Ehun eta proposamen ekonomiko bakoitzak lizitazio-prezioarekiko duen ehunekoaren arteko aldea izango da proposamen horren "baja":

100 x [1-(proposamena / lizitazioa)]

- "Baja" gehien duen proposamenari "A baja" deituko diogu eta gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 50 puntu. Formula honen arabera haztatuko da beste edozein B proposamen:

45 – (A Baja – B Baja)

Neurrigabeko edo ezohiko eskaintzen ondorioz, proposamenak bete ezin direla ondorioztatuko duten mugak honako hauek izango dira:

Aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino 10 ehuneko-unitate baino gutxiago dituzten eskaintzak, printzipioz, ezohikotzat edo neurriz kanpokotzat joko dira, eta lizitaziotik kanpo utz daitezke.

Parametro objektibotzat jotzen da proposamenak bete ezin direla balioesteko, Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako soldata-kostuak baino prezio txikiagoa adierazteak balio anormalak edo neurriz kanpokoak sartzearen ondorioz. Horrek eskaintza baztertzea ekarriko du.

Nolanahi ere, kontratazio-organoek uko egingo diete eskaintzei, baldin eta egiaztatzen badute oso baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan, nazio zein mundu mailan aplikatzekoak diren betebeharrak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

9/2017 Legearen 159.4 f) artikuluaren arabera, puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxua dela uste denean, aipatutako legearen 149. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetuko da, baldintza-agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu eta puntuazio onena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egin ondoren. Prozeduran, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatuko da, baina lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ezingo da izan 5 egun baliodun baino gehiagokoa, jakinarazpena bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Ustezko anormaltasun-egoeran dagoen enpresak kontratuaren adjudikazioa lortu badu, kontratazio-organoak kontratua behar bezala gauzatzen dela zainduko du, kontratatutako zerbitzuen kalitatea murriztu gabe.

B) Kontratua exekutatuko duten pertsonalentzako legean jasota ez dauden kontziliazio neurriak edukitzea euren bizitza pertsonala, lana eta familia-bizitza uztartzeko; gehienez ere 5 puntu.

- Neurri bat: 2 puntu
- Bi neurri: 4 puntu
- Hiru neurri: 5 puntu

Baldintza hau baloratzeko enpresak irizpideak modu frogagarrian justifikatzen dituen beharrezko dokumentazioa (kontziliazio neurrien plana, besteak beste) aurkeztu beharko du.

C) Lanak egiteko euskararen ezagutza: 5 puntu

Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaile eta ordezko izendatutako pertsonek C1 euskara-titulua izatea 5 punturekin baloratuko da.

21.2.- Balio-iritzien bidez ebalua daitezkeen irizpideak (1 artxibo elektronikoan sartu beharrekoak): 45 puntu.

Irizpide honetan, kontratuaren xede diren lanen antolaketari eta prestazioari buruz lizitatzaileek idatzitako zerbitzuen gauzatze-proiektuaren (memoria teknikoa) kalitatea eta ondorioak hartuko dira kontuan, baita proposatutako giza baliabideak ere. zerbitzuaren ahalik eta errendimendu handiena eta kalitate onena lortzeko.

Balorazio-txostenak zehatz-mehatz aztertu eta kalifikatuko ditu irizpide bakoitzari dagozkion elementu edo azpi-irizpide baloragarriak. Bakoitzari honako kalifikazio hauek emango zaizkio, arrazoiak emanez:

- OSO ONA-BIKAINA "(" BI"): Alderdi horren azterketa osoa eta zehatza egiten denean, eta jarduera-neurri egokiak, zehatzak, errealitatera egokitutakoak, koherenteak, justifikatuak, ondo definituak eta/edo berritzaileak proposatzen direnean.

- "ONA-ONARGARRIA" ("OO"): baloratu beharreko elementuari buruzko azterketa eta proposamena xehatua denean, baina jarduketa zehatz eta/edo berritzaileetarako neurririk proposatzen ez denean.

- "ERREGULAR-NAHIKOA" ("EN"): prestazioaren azterketa labur batera mugatzen denean, teorikoa eta errealitatetik oso hurbil ez dagoena, edo jarduera zehatzen ekarpenik egiten ez denean.

- "EZ DA NAHIKOA" ("EZ"): azterlanak osatugabea denean, baloratu beharreko elementuarekin lotutako informazio edo dokumentazio nahikorik ez duenean edo datu kontraesankorrak dituenean, edo azterlana kontratu honen xede diren zerbitzuen beharretara egokitzen ez denean, edo erabili beharreko bitartekoak zerbitzu bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen ez direnean, koherentzia gutxi dutenean edo planteatutako konponbidea argi eta garbi ezagutzen uzten ez dutenean.

Jasotako kalifikazioaren arabera, balorazioaren xede den atal bakoitzari honako puntuazio hau emango zaio:

KALIFIKAZIOA	
OSO ONA-BIKAINA (BI)	Puntuen % 100 arte
ONA-ONARGARRIA (OO)	Puntuen % 60 arte
ERREGULAR-NAHIKOA (EN)	Puntuen % 30 arte
EZ DA NAHIKOA (EZ)	0 puntu

Horretarako, lizitatzaileek memoria bat aurkeztu beharko dute. Memoria horretan, xehetasunez zehaztuko dira zerbitzua nola eman den baloratzeko aukera emango duten alderdiak, honako irizpide hauen arabera:

1. irizpide: Giza baliabideak (20 puntu)

Eskainitako lantalde teknikoa nahikoa izango da lanak behar bezala egiteko, kontuan hartuta diziplina aniztasuna eta egin beharreko lan-planaren justifikazioa. Kontratuaren ardura izango duten teknikarien antzeko obretako esperientzia profesionala baloratuko da. Eskaintzan, lan bakoitzean izango duten erantzukizuna eta dedikazioa jaso beharko dira.

Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaile titularra izendatuko da, eta titularra kanpoan bada (oporrak, bajak, baimenak...) absentzia horretan ezarritako eginkizunak betetzen dituen pertsona izendatuko da.

Geroago, langile horiek ordezkatzeko, Administrazioak onartu egin beharko du, izendatu berri diren langileen "curriculum vitaea" aurkeztu ondoren.

Aurkezpenerako gehienez 6 orrialde A-4 erabiliko dira, curriculum vitaeak alde batera utzita. 6 orrialde baino gehiago aurkeztuz gero, kopuru horretatik gorako orriak ez dira baloratuko, ezta kanpoko loturen bidez emandako informazioa ere.

2. irizpide: Egin beharreko lanen ezagutza-maila (15 puntu)

Lanen memoria teknikoan argi eta zehatz azalduko da lanen edukiari eta garapenari buruzko proposamena, lanen irismena ezagutu ahal izateko eta enpresak egin beharreko lan-sektorearen problematikari buruz duen ezagutza frogatzeko.

Segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak ikuskatuko du ea betetzen den kontratistak istripuak edo obretan gertatzen diren kalteen arrazoiak ikertzeko duen betebeharra. Ikerketa horren Zuzendaritza Fakultatiboari jakinaraziko zaio.

Gauzatze-fasean segurtasuna eta osasuna kontrolatzeko lana nola egingo duten adierazi beharko dute enpresek, baita Zuzendaritza Fakultatiboarekiko komunikazio-proposamena ere.

Atal honetan, gutxienez, honako puntu hauek aztertuko dira:

- Gorabehera espezifikoak, teknikoak eta ekonomikoak deskribatzea, gorabehera esanguratsuak eragin ditzaketenak haien martxan eta gauzatzean.
- Lana egiteko jarraitu beharreko metodo operatiboak, eta barneko eta kanpoko eragileen koordinazioa gauzatze-epean.
- Diziplina anitzeko taldeen obretarako koordinazio-metodologia, obran egoteko prestasunaren, gaitasun teknikoaren eta lanbide-esperientziaren printzipioak kontuan hartuta.
- Zabortegiaren jarduerarekiko koordinazioa aipatuko da.
- Obrak egin bitartean ATEX araudiak aplikatzeko berariazko operatiba aipatuko da.

Aurkezpenerako gehienez 10 orrialde A-4 erabiliko dira. 10 orrialde baino gehiago aurkeztuz gero, kopuru horretatik gorakoak ez dira baloratuko, ezta kanpoko loturen bidez emandako informazioa ere.

3. irizpide: Lan-programa (10 puntu)

Lan-programa xehatua aurkeztea baloratuko da. Plan horretan jasoko da, halaber, obretara bisitak egiteko aurreikusitako aldizkakotasuna, bilerak, egiaztapenak, egiaztapenak eta txostenak eta gainerako jarduerak aurkeztea, baita plan hori erabilgarri dauden baliabideekin bat datorren ere.

Aurkezpenerako gehienez 6 orrialde A-4 erabiliko dira. 6 orrialde baino gehiago aurkeztuz gero, kopuru horretatik gorakoak ez dira baloratuko. Diagramak aurkezteko, A4ko hosto-tamaina handiagoak erabili ahal izango dira. Kanpoko loturen bidez ematen den informazioa ere ez da kontuan hartuko.

9/2017 Legearen 146.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitatzaileek **gutxienez 25 puntuko atalasea** lortu beharko dute atal honetan, hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izateko.

22. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoak kontratatu ahal izango dira sektore publikoarekin, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta ez badute 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekurik.

Kontratuaren xedeari laguntzen dioten prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute kontratistek.

Gainera, eta Kontratuen Legearen 159. artikuluaren laugarren paragrafoan ezarritakoa betez, beharrezkoa izango da Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatzea, eskaintzak aurkezteko azken egunerako.

Pertsona juridikoak kontratuen adjudikaziodun izan ahal izango dira soil-soilik prestazioak beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan badaude.

9/2017 Legearen 159.6.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lizitatzaileak salbuetsita daude ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzetik.

23. KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK FORMULATZEA

Toki-erakundeko kontratazio-organoek, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 5 egun lehenago beranduenez, baldintza-agiriei eta gainerako agiri osagarriei buruzko informazio gehigarria emango diete lizitazio-prozeduran interesa duten guztiei, baldin eta proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 8 egun lehenago eskatu badute informazio hori.

Erantzunak lotesleak izango dira, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

24. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Pleguetarako eta gainerako dokumentazio osagarrirako sarbidea Udal Elkarte honek eskainiko du, kontratatzailearen profilean (https://www.urolakosta.eus/eu/kontratatzailearen-profila), bitarteko elektronikoen bidez. Sarbide hori librea, zuzena, osoa eta doakoa izango da, eta lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera egingo da.

9/2017 Legearen 159.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez egongo da eskuragarri, iragarkia kontratatzailearen profil horretan argitaratzen den egunetik aurrera.

Derrigorrezkoa da lizitazio eta kontratazio elektronikoko sistema erabiltzea, lizitazioa elektronikoa izango baita soilik.

Eskaintzak aurkezteari dagokionez, honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

- Aurkezteko epemuga (ordua adierazita): 2024ko apirilaren 8a, 18:00etan.
- Eskaintzen aurkezpenerako erregistroa: Kontratazio Elektrikoko Erregistro Telematikoa

- Formulen araberako irizpideen irekiera-data eta ordua: apirilaren 15a, 10:00etan.

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietara eta dokumentazioetara egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du enpresariak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen diola mahaiari eta kontratazio-organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Proposamenak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita aurkeztu beharko dira.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezin izango du proposamenik sinatu beste batzuekin aldi baterako elkartuta, era indibidualean egin badu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek hautsiz gero, lizitatzaile horrek sinatutako proposamen bakar bat ere ez da onartuko.

25. PROPOSAMENEN EDUKIA

Lizitatzaileek bi fitxategitan aurkeztu beharko dute proposamena.

1. artxibo elektronikoak esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa jasoko du, baldin eta irizpide horien balorazioa balio-judizioaren araberakoa bada, irizpide horiek baldintza-agiri honen 21. klausulan adierazten dira.
Dokumentazio hori errazago aztertzeko, honako parametro hauen arabera idatzi beharko da dokumentazioa:

- Formatu digitalean aurkeztu arren, irizpide hauek baloratzeko, DIN-A4 formatuaren ezaugarriak hartuko dira kontuan (DIN-A3 formatuan aurkeztu ahal izango diren diagramak izan ezik).
- Dokumentazioaren gehieneko luzapena (azalak edo aurkibideak kontuan hartu gabe): 50 orrialde guztira. 5 irizpideetako bakoitzean adierazitakoa.
- Marjinak: behekoa eta goikoa: 2 cm, ezkerrekoa eta eskuinekoa: 2 cm.
- Letra-mota eta tamaina: Arial 11 testu-gorputza (edo antzekoa, adierazitako letra-mota ez badu).
- Lerroartea: bakuna.
- Beste baldintza batzuk: paragrafoen arteko tarte bat utzi beharko da (testu-gorputzeko Arial 11ren antzeko tamainaren baliokidea).

Agiri honetan ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak (azala eta aurkibideak kontuan hartu gabe) ez dira inola ere prozeduratik kanpo utziko.

Adierazitako gehieneko luzera gainditzen bada, haren edukia baloratuko da baimendutako gehieneko orri kopurura arte.

Artxibo elektroniko honetan ezin izango dira sartu, inola ere, artxibo elektronikoaren berezko dokumentuak. Datu horietako edozein 1. artxiboan sartzeak berekin ekar dezake enpresa lizitatzailea prozedura honetatik kanpo uztea, eta ez da artxibo hori irekiko.

2 izeneko fitxategiak -azalak erantzukizunpeko adierazpena izango du, eta I. ERANSKIN gisa erantsi den formularioarekin bat etorriko da. Bertan, 9/2017 Legearen 157.4 c) artikuluaren arabera, honako hau adieraziko du lizitatzaileak:

- Sinatzailea eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaria da;
- Jarduera egiteko beharrezko baimenak ditu.
- Ez du inolako kontratazio-debekurik.
- Enpresa atzerritarra bada, Espainiako legeei men egitea.

- Eskaintza aldi baterako enpresa-elkarte batek aurkezten badu, elkartea eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean indarrean egon beharko dira, eta kontratua burutzen den unean berdin jarraitu beharko dute.

Fitxategi horretan eskaintza ekonomikoa sartuko da, II. ERANSKINean jasotako ereduari jarraiki.Horrekin batera, I ERANSKINA, III-A ERANSKINA eta V ERANSKINA aurkeztu beharko dira. IV. ERANSKINA aurkeztu ahalko da, lizitatzaileak hala nahi izanez gero.

Eskaintza ekonomikoa karaktere argietan edo makinaz idatzita aurkeztuko da; beraz, ez dira kontuan hartuko Udal Elkarteak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten eskaintzak.

9/2017 Legearen 133. artikuluaren arabera, Udal Elkarteak ez du zabalduko enpresariek IV. ERANSKINA erabiliz beren eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat izendatu duten informaziorik.

Konfidentzialtasun-izaerak, besteak beste, honako hauei eragiten die: sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori, dela lizitazio-prozedura horretan, dela ondorengo beste batzuetan.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ezin izango da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora. Era berean, egindako eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango.

Konfidentzialtasun-betebeharrak ere ezingo du eragotzi egindako kontratuen alderdi ez-konfidentzialak jendaurrean zabaltzea, betiere abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa errespetatuz.

Eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko baimena, eta, kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, datuen tratamendurako kontratua sinatu eta betetzeko konpromisoa, tratamenduaren arduradun den aldetik, baldintza-agiri honen V. ERANSKINeko ereduari jarraiki.

26. PROPOSAMENAK AZTERTZEA, ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA ETA PUBLIZITATEA

Proposamen teknikoak aztertu eta baloratu ondoren (gehienez ere zazpi eguneko epean), formula bidez baloratu daitezkeen irizpideak dituzten artxiboak irekiko dira, eta adjudikazio-proposamena aurkeztuko da, Udal Elkarteko Lehendakaritzaren eskumena baita.

9/2017 Legearen 159.4 f) 4 artikuluaren arabera, komunikazio elektronikoaren bidez puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko zaio adjudikaziodun izateko beharrezkoa den edozein informazio aurkezteko, hala badagokio, kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa barne, eta hori guztia 7 egun balioduneko epean, komunikazioa bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

9/2017 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jakinarazpenak horretarako gaitutako helbide elektroniko bidez egin ahal izango dira. Jakinarazpenetik kontatzen diren epeak jakinarazpena bidaltzen den egunetik aurrera zenbatuko dira, betiere jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatuko dira epeak.

27. KONTRATUA EZ ADJUDIKATZEKO EDO EZ EGITEKO ERABAKIA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

Kontratazio-organoak dagokion deialdia egin denean adjudikazio-prozedura bertan behera uzten duenean edo kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen duenean, lizitatzaileei jakinaraziko die.

Kontratua formalizatu aurretik, ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia edo prozeduran atzera egitea erabaki dezake kontratazio-organoak, eta lizitatzaileei konpentsatu egin beharko zaie, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura komunaren izapideen bidez.

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik bakarrik hartu ahal izango da; kasu horretan, ezin izango da kontratuaren xedearekin beste lizitazio bat sustatu, erabakia oinarritzeko alegatutako arrazoiek irauten duten bitartean.

Prozeduran atzera egitea kontratua prestatzeko arauetan edo adjudikazio-prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin den arau-hauste batean oinarritu behar da, eta espedientean justifikatu behar da arrazoia gertatu dela. Atzera egiteak ez du eragotziko lizitazio-prozedura bat berehala hastea.

28. ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA. FORMALIZAZIOA

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu, eta gehienez ere 5 eguneko epean adjudikatuko zaio kontratua adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzaileari, eta adjudikatu ondoren, formalizatu egingo da.

Adjudikazioaren ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Adjudikazio-prozeduran interesdunek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jartzeko behar duten informazioa jaso beharko dute jakinarazpenean eta publizitatean. Errekurtso horretan, honako hau agertu beharko da beti:

- Adjudikazio-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, zerbitzuak eskatutako baldintzekin bat ez datozen erabakiaren arrazoiak, eta lizitatzaileei esleitutako balorazioen banakapena, adjudikazioduna barne.
- Nolanahi ere, adjudikaziodunaren izena, haren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, eskaintza hautatua izateko erabakigarriak, gainerako lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak baino lehentasun handiagoz.

HIRUGARREN KAPITULUA – IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honen arabera egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan aurreikusten ez den guztirako, honako hauetan berariaz xedatutakoa beteko da:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra, 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua, indarrean jarraitzen duen bitartean.

- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren aurka ez doan heinean.

- Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauek aginduko dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoek.

- Preskripzio teknikoen agiria.

- Administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako klausulak.

Administrazio-klausula zehatzen agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik badago, plegu honetan xedatutakoa gailenduko da.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren auziak aipatutako araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira, eta, administrazio-isiltasuna badago, kontratazio-organoek arautuko dituzte. Horien erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta, haien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitakoaren arabera. Hala ere, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

I. ERANSKINA

DEKLARAZIO-EREDUA

..... jaunak/andreak, adinez nagusia, NAN zbk. ..... (helbidea…….....; tel….....; fax zbk. ….....), honen izenean: ..... (IFK zbk. ……..…..; helbidea .....; tel.....; fax zbk. ….....), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin,

ADIERAZTEN DU

1) Bai berak, bai ordezkatzen duen enpresak, hala badagokio, Administrazio Publikoarekin kontratatzeko ahalmena duela, jarduteko gaitasun osoa izanik, ez baitago Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ezein egoeratan.

2) Egunean dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan (urriaren 12ko 1098/2001 ED) aurreikusitako irismenarekin.

3) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela baja eman zerga horren matrikulan.

4) Inolako salbuespenik gabe ezagutzen eta bere gain hartzen dituela baldintza administratibo eta teknikoen agiria eta Udal Elkarteari zerbitzua emateko kontratazioa (2024IKIS0001) arautzen duten gainerako agiriak.

5) Ordezkatzen duen enpresak kontratuaren xede diren lanak garatzeko indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituela, baita kontratu honen berariazko betekizunak ere, eta, zehazki, zortzigarren klausulan jasotzen den kaudimen ekonomikoa zein teknikoa.

(Lekua, data eta sinadura)

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

..... jaunak/andreak, adinez nagusia, NAN zbk. ....., helbidea…….....; (Tel. .....; Fax. .....) bere izenean edo honen izenean: ....., IFK ……..... eta egoitza soziala ..... (Tel. ..... Fax. .....), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin,

ADIERAZTEN DU

- Adjudikaziodun suertatuz gero, lanak eskaintzaren baldintzen arabera egingo dituela, eta aipatutako baldintza-agirietako betekizunei eta baldintzei zorrotz lotuta, bisita bakoitzeko **unitate-prezio** honekin:

Bisita bakoitzeko banakako prezioa, BEZ barne	
• Banakako prezioa, BEZ gabe	
• BEZ	

Prezioaren baitan daude kontzeptu guztiak, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-alorretako arielak barne, baita kontratistaren etekin industriala ere.

III. ERANSKINA

A. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN ZINPEKO AITORPENA

Kontratatzen den esleipendunak nahitaez bete behar ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, laneko segurtasun eta higienearen arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak, eta Urola Kostako Udal Elkarteak erantzukizunetik salbuetsita geratuko da ez-betetze horrengatik.

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du, esleipena gauzatzen denerako, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko Lege horren 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2007 Errege Dekretua eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betetzeko:

Lizitatzailearen datuak:

Nik, ..., adinez nagusi eta NAN..... zenbakiaren jabeak (helbidea: .....; tel.: .....; e-maila: …….....), nire izenean edo ..... enpresaren ordezkari gisa (IFZ: .....; helbidea: .....; tel.: .....; e-maila: .....) jarduteko gaitasun juridikoa osoa dudalarik,

ADIERAZTEN DUT

1. Goian adierazitako datuak dituen enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritako betekizunak betetzen dituela, eta araudi horren araberako prebentzio-modalitate bat duela (Prebentzio Zerbitzu Propioa edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzua), eta, esleipena eskuratuz gero, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikuluan eta urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan (24. artikuluan, enpresa-jardueren koordinazioa garatzen da) aurreikusitako koordinazio-neurriak zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen duela.

2. Zehazki, goian aipatutako enpresako langileak, euren lanpostuaren arrisku eta hartu beharreko neurriei buruz informazio jaso dutela, lanposturako beharrezko den prestakuntza eta norbera babesteko ekipamendua jaso dutela. Horrenbestez, langileak lanposturako gaitasuna egiaztatuta dutela eta erabili beharreko laneko ekipoetarako prestakuntza jaso eta baimena eman zaie.

3. Lanak egingo diren zentroko edo zentroetako jarduteko arauak eta larrialdi-kasuetarako segurtasun-arauak jakinaraziko dizkiela lanak egingo dituzten langileei.

4. Erregelamendu bidez arriskutsutzat edo arrisku berezitzat jotzen diren jarduerak edo prozesuak egingo dituen enpresak, hala nola:
    a. Altueran erortzeko arriskua duten lanak
    b. Lurperatzeko edo hondoratzeko arriskua duten lanak
    c. CE adostasun-aitorpenik ez duten makinak erabiltzen diren jarduerak, haien merkaturatze-data aitorpen hori nahitaez eskatu baino lehenagokoa delako.
    d. Espazio konfinatuetan lan egitea
    e. Urperatzearen ondorioz itotzeko arriskua duten lanak
    f. Presentzia horren beharra Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak eskatzen duenean, kasuaren inguruabarrek hala eskatzen badute, antzemandako lan-baldintzengatik.

Udal elkarteari jakinaraziko dio, eta dagokion pertsona izendatuko du prebentzio-baliabide gisa. Izendatutako pertsona edo behar bezala kualifikatutako eta idatziz izendatutako ordezko bat ez badago, lanak geldiaraziko dira, azpikontratatutako enpresenak edo balizko langile autonomoenak barne.

5. Azaldutako guztia egiaztatzen duen dokumentazioa garaiz eta behar bezala entregatuko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari, jarduerak hasi aurretik. Lanak hasi aurretik, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da. Dokumentazio hori lanak hasi baino gutxienez 5 egun lehenago aurkeztu beharko da.

6. Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du lan-arriskuen aurreikuspenari buruzko dokumentazioa kudeatzeko. Behin kontratua esleituta, pertsona horrek mezu elektroniko bat jasoko du notificaciones@e-coordina.com. Enpresa esleipendunak plataforma horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta horretarako izendatutako pertsonaren datuak honako hauek dira:
   a. Izen-abizenak: _____
   b. Kargua: _____
   c. Posta elektronikoa: _____
   d. Telefonoa: _____
   e. Kontratazio-espedientearen kodea: _____

IZEN-ABIZENAK	***LANPOSTUA***
SINADURA ETA ZIGILUA *ENPRESA LIZITATZAILEA*	

B. ENPRESENTZAKO BALDINTZAK LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN

Baldintza hauen xedea da obra-kontratu baten bidez Urola Kostako Udal Elkarteko zentroetan edo beste leku batzuetan jarduten duten enpresa guztiek Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan bete behar dituzten betebeharrak finkatzea.

1) Lanekin hasi aurretik enpresa kontratista honako bete beharko du:

a) Urola Kostako Udal Elkarteko ecoordina plataformaren bitartez dokumentazioaren kudeaketa. Proposamenean aurkeztutako zinpeko aitorpenean, enpresa esleipendunak koordinazioa kudeatzeko pertsona bat izendatzen du. Behin kontratua esleituta, pertsona horrek helbide elektroniko bat jasoko du adierazitako notificaciones@e-coordina.com . Enpresa esleipendunak plataforma horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, jabetzak adierazitako espedientean.
   - Lanak hasi aurretik, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da. Dokumentazio hori lanak hasi baino 48 ordu lehenago balioztatuta egon beharko da gutxienez.
   - Eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, lana egingo duten pertsonak ezin izango dira obrara sartu ezarritako betebeharrak/betekizunak bete arte.
   - Aurkeztu beharreko dokumentazioa kontsultatzeko deitu 943 89 08 08 zenbakira eta galdetu prebentzio-teknikariaz.

b) Koordinazioa egoki kudeatzeko hasierako bilera. Bilera bat antolatuko da udal elkarteak beharrezkotzat jotzen duen kasuetan.

Proposamenean adierazitako pertsona arduratuko da obrako langileei, hartu beharreko arriskuei eta segurtasun-neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza emateaz, azpikontratatutako enpresak barne, dagozkien laneko arriskuen prebentzioari buruzko arau guztiak betetzeaz eta betearazteaz ere.

Enpresak eskura jarri beharko ditu lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren ekipamendu eta baliabide osagarriak, eta horretarako izendatutako langileek prestakuntza egokia izan beharko dute laneko arriskuen prebentzioaren arloan, horiek gauzatzeko.

2) Zerbitzuen exekuzio fasean

Lanak egin bitartean, enpresa kontratistaren arduradunak idatziz jakinaraziko dio Urola Kostako Udal elkarteak izendatutako arduradunari:

1. Kontrataren jarduketan izandako edozein aldaketa esanguratsu, langileak lanean hastea/uztea, obra egin bitartean izandako edozein gorabehera. Idatzian, aldaketa horrek ze behar dituen adieraziko da, segurtasunari eta osasunari begira.

2. Jarduera hasi aurretik aurkeztutako dokumentazioa eguneratu nahi izanez gero, Urola Kostako Udal elkarteari jakinaraziko zaio, hasieran adierazitako moduan, e-coordina bidez.

3. Zerbitzua gauzatzean gerta daitekeen edozein istripu/gorabehera berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteko arduradunari, eta, ondoren, 24 orduko epean, idatziz. honako hauek jasoko dira: gertakariaren deskribapena, gertatutakoaren ondorioetako kalteak/lesioak, argazkiak, atzemandako arrazoiak, ekintza zuzentzaileak eta horri buruzko proposamenak.

IV. ERANSKINA

(Aurkeztea hautazkoa da)

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIALTZAT IZENDATZEKO EREDUA

..... jaunak/andreak, NAN zbk:..... eta helbidea:....., bere izenean (edo honen izenean:……..……, egoitza: ……..……..……, eta IFZ ……..…… (*pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan hartuta*), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin,

ADIERAZTEN DU

.....gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioari dagokionez (adierazi zein gutun-azal den), kontratazio-espediente zk....., konfidentzialtzat jotzen dira eskaintzaren informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin duten lotura dela-eta:

Konfidentzialtasun hori honako arrazoi hauengatik justifikatzen da:

(Lekua, data eta sinadura)

V. ERANSKINA

Datu pertsonalak tratatzeko baimena eta datuen tratamendurako kontratua sinatzeko konpromisoa.

..... jaunak/andreak, NAN zbk:..... eta helbidea:....., bere izenean (edo honen izenean:……..……, egoitza: ……..……..……, eta IFZ ……..…… (*pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan hartuta*), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin,

ADIERAZTEN DU

Baimena ematen dut 2024IKIS0001 zenbakidun kontratazio-espedienteari aurkeztutako eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko.

Goian adierazitako kontratazio-espedientearen kontratuaren adjudikaziodun suertatuz gero, konpromisoa hartzen dut, tratamenduaren arduraduna naizen aldetik, kontratuaren xedea betetzeko behar den datu pertsonalen tratamendurako kontratua sinatzeko eta betetzeko.

(Lekua, data eta sinadura)

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA
Tratamenduaren arduraduna Urola Kosta Udal Elkartea
Xedea: Udal Elkartearen obra eta zerbitzuen hornidura-kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera.
Tratamenduaren legitimazioa: Toki-administrazioaren legeria, erakundearen estatutuak, udal mankomunatuek emandako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.
Hartzaileak: Kontratazioari dagokion obra edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik emango zaizkie datu pertsonalak.
Eskubideak: Datuak eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu inprimakiaren amaieran edo gure webgunean: http://www.urolakosta.eus/eu/web/ingurumena-urolakosta/datuen-babesa

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679 EB) ezarritakoaren arabera, Urola Kosta Udal Elkartearen hornitzaileak (obra- eta zerbitzu-kontratuak) kudeatzeko eskatutako datuen tratamenduari buruzko informazioa aurkezten dizugu.

Tratamenduaren arduraduna

Urola Kostako Udal Elkartea, IFZ G20392064
Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz, Tel. 943890808
idazkaritza@urolakosta.eus www.urolakosta.eus

Datuak babesteko ordezkariaren kontaktua

dbo@urolakosta.eus

Tratamenduaren xedea

Udal Elkartearen obra eta zerbitzuen hornidura-kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera. Datuen tratamenduak ez dakar erabaki automatizaturik, ez eta profilak sortzerik ere.

Datuak gordetzeko epea

Kontratazio-espedientearen esleipena amaitutzat eman arte, kontratuaren xede den obra edo zerbitzua eta/edo hura justifikatzeko epea.

Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa

Toki-administrazioaren legeria, erakundearen estatutuak, udal mankomunatuek emandako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.

Datuen jatorria

Interesa duten pertsonak

Datuen kategoria

Tratamendu honetan honako datu-kategoria hauek tratatzen ditugu: identifikazio-datuak, helbideari eta harremanei buruzko datuak, hornitzailearen datuak (besteak beste, datu akademikoak, profesionalak eta langileen kaudimen teknikoari buruzkoak) eta datu ekonomikoak. Ez dira bereziki babestutako datuak tratatzen.

Hartzaileak

Kontratazioari dagokion obra edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik emango zaizkie datu pertsonalak. Ez da aurreikusten datu horiek hirugarren herrialdeetara transferitzea.

Pertsonen eskubideak

Interesdunek Datuak Babesteko Ordezkariaren bidez eskuratu ahal izango dituzte beren datuak, eta datuak zuzentzeko edo, hala badagokio, ezabatzeko, aurka egiteko edo tratamendua mugatzeko eska dezakete. Era berean, interesdunek Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamazioak egiteko eskubidea dute.